

**2016KO EKAINAREN 30EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita hamar

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamasei

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV udal taldekoak:

LEIRE ARTOLA UGALDE
MALU VALLES FERNANDEZ
XABIER MATARRANZ RICO
EDORTA DIAZ DEL RIO
IRMA ARNAIZ GUILLEN
ENKARNI ARRIETA TELLERIA
JON OLANO ARRESE
ELENA RUIZ ZABALA

Beasaingo EH BILDU udal taldekoak

KOLDO AGIRRE MUJICA
GARBIÑE ZURUTUZA FERNANDEZ
AITOR LARBURU IZAGUIRRE
MIREN AMAIA BARANDIARAN VELEZ DE MENDIZABAL
AITOR MARTIN URTEAGA OSINALDE
ZEZILIA HERRADOR GARIN

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak:

SANTIAGO URDAMPILLETA DOS SANTOS

ETORRI GABEA: ANGEL REDONDO FERNANDEZ (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

IDAZKARIA: ITZIAR AROSTEGI APAOLAZA

Bilera honetan LURDES ALEGRIA LASA, kontuhartzaileak, parte hartzen du. Baita ere Aitziber Yurrebaso andreak, bat-bateko itzultzaile lanetan.

Alkatea jaunak (EAJ/PNV), proposatu du, UDAL SAREA: EAEko tokiko jasagarritasunaren aldeko konpromisoa berritzeko akordioa: Udalsarea 21, jasagarritasunerako udalerrien euskal sarea, gai-zerrendako 4. puntua, hain zuzen ere, mahai gainean uztea, dagokion batzordean aztertzeko.

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

1.- AURREKO AKTA. 2016ko maiatzaren 26ko akta onartzeko proposamena.

2016ko maiatzaren 26ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ORDENANTZAK:

- Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa eta ur eta zabor tasen arloan laguntzak emateko ordenantza. Hasierako onespena.

Alkate jaunak, Malu Vallés gizarte-ongizateko batzordeburuari hitza eman dio ordenantzaren aldaketak azaltzeko eta honek ondorengoa adierazi du:

“El tema que traemos hoy a pleno para aprobación también se trató en una ocasión anterior, pero como hay una modificación lo volvemos a traer. Con subvencionar las tasas de agua y basuras no hay ningún cambio de criterio, pero no sucede lo mismo con las ayudas para las tarifas del polideportivo municipal. En este caso se han determinado diferentes criterios desde que se comenzó con este tipo de ayudas, ya que ni este equipo de gobierno ni los anteriores hemos tenido muy claro cómo actuar. Lo que ahora se propone para su aprobación cuenta con el visto bueno de la comisión, aunque no de manera unánime, pero sí con un importante apoyo. En definitiva se trata de subvencionar únicamente el abono de verano, al entender que el uso del polideportivo no es indispensable ni básico para la sociedad y por lo tanto no corresponde subvencionarlo al departamento de bienestar social. Lo que consideramos es que puede ser objeto de subvención el uso de las piscinas en verano (meses de junio a septiembre), ya que familias con escasez de recursos pueden verse limitadas.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Koldo Agirre jaunak (BILDU): “Ur eta estolderiaren eta Euskaltegien tasetan ez dugu ezer esateko, baina gizarte-ongizate batzordean komentatu genuen bezala, gu kiroldegiko tasen diru-laguntzekin ez gaude ados eta gure proposamena izan zen lehen zegoen moduan uztea. Maluk esan du ez dela oinarritzeko zerbitzu bat. Guk gure zalantzak ditugu. Zaila egiten zaigu gure ere oinarritzeko zerbitzua den ala ez. Nik uste dut eztabaida asko ekarri ditzakeen

gaia dela, egon daitezkeelako pertsonak benetan behar dutenak eta beste batzuk ez. Ikusten dugun ezberdintasuna da, dagoeneko pertsonak batzuk badituztela dirulaguntza, bonifikazio edo tasa murriztu batzuk, adibidez, familiak, federatuak, gazteak, jubilatutak. Beraz, kaltetuak aterako direnak, benetan diru behar gehien izan dezakeen jendea dela. Hori horrela izanda, gure ustetan lehenago egokiagoa zen orain proposatzen dena baino. Horregatik puntu horri aurkako botoa emango diogu.”

Horren ondorioz, Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa arloan laguntzak ematea bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 6 (BILDU)

Abstentzioak: 0

Jarraian bozkatu da ur eta zabor tasen arloan laguntzak ematea bozkatu da eta aho batez onartu da.

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa eta ur eta zabor tasen arloan laguntzak emateko ordenantzari hasierako onespina ematea..

Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, informazio publikoan jartzen da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Udalaren Idazkaritzan aztertu ahal izango da. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.

“UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TARIFA ETA UR ETA ZABOR TASEN ARLOAN LAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA.

1.-AURREKARIAK

2014ko abenduaren 5ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatik tarifa eta tasen arloan laguntzak emateko Ordenantza argitaratu zen.

Hala ere, eskaerak aurkezteko epea eta irizpideak aldatzeko beharrak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa erraztu nahi izateak, diru-laguntza hauek arautzeko ordenantza berri bat egiteko beharra sortu du.

Ordenantza berri hori, ondorengo edukiarekin egituratuta gelditzen da:

I. Kapituluak: Xedapen Orokorrak.

II. Funtzionamendu-arauak.

Xedapen Gehigarria

Xedapen Indargabetzailea.

Azken Xedapena.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1.artikulua. Helburua.

Ordenantza honen helburua zera da, udalerriko giza talderik behartsuenentzat, karga ekonomikoa murrizteko edota deuseztatzeko balioko duen laguntzen udal-politika garatu eta gauzatzea, hau da:

-Ohiko etxebizitzako ura eta zabor-tasen ordainketa.

-Ekainetik iraila bitartera bakarrik Udal Kiroldegiaren zerbitzuak erabiltzeagatiko tarifen ordainketa.

2. artikulua. Ezarpen-esparrua.

Ordenantza hau, Beasaingo Udalerrian eskaera egin baino 6 hilabete lehenagotik erroladatuta egonik, laguntzak emateko baldintzak betetzen dituzten pertsonei aplikatuko zaie.

II KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

3. artikulua. Tasa arloan laguntzak jasotzeko.

Eskatzailea den pertsonak eskaeran azaltzen den helbidean erroladatuta egon eta bizi behar du.

Eskaera etxebizitza bakarrarekiko egin daiteke.

Laguntzak gauzatzeko, ura eta zabor-tasen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Laguntza ura eta zabor-tasen zenbatekoaren %100era irits daiteke.

Balorazio ekonomikoan etxebizitzan erroladatuta dauden pertsona guztien diru-sarrerak kontutan hartuko dira .

4.artikulua. Ekainetik iraila bitartera bakarrik Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatiko tarifen arloan laguntzak jasotzeko.

Laguntzak gauzatzeko, Udal kiroldegiko zerbitzuen erabilpenarengatiko udako abonuaeren tarifen ordainketako zenbatekoak hartuko dira kontuan.

Ekainetik irailera (biak barne) bitarteko edozein hilabeteko kiroldegiko kuota ere diruz lagunduko da.

Laguntza gehienez ere udako abonuaeren tarifaren %60ra iritsi daiteke.

Balorazio ekonomikoan kontutan edukiko dira elkarbizitza unitarearen diru-sarrerak. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko Legeko

9.1 artikulua erabiliko da jakin ahal izateko nortzuk osatzen duten elkarbizitza unitatea.

5. artikulua. Eskaera egiteko epea

Eskaera epea:

-Ura eta zabor-tasen inguruan laguntzak jasotzeko: urtero martxoaren 1etik 31ra.

-Kiroldetik zerbitzuen erabiltzeagatik tarifa inguruan laguntzak jasotzeko: urtero urriaren 1etik 31ra.

Ezarritako epea kanpo egindako eskaera oro, ukatua izango da.

Gai honetan udal-laguntza lortzeko ez du esan nahi onuraduna hurrengo ekitaldietarako berriz ere laguntza-eskaera egin behar ez duenik eta beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu behar ez duenik.

6.artikulua. Irizpideak eta laguntzaren kopurua

Ur eta zabor-tasen inguruan laguntza jasotzeko:

-Urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) kopuru arte: ordainagiriko %100a.

-Urteko LGS kopurutik urteko 1,5 LGSra: ordainagiriaren %75a.

- Urteko 1,5 LGStik urteko 2 aldiz LGSra: ordainagiriaren %50a.

Udal kiroldegiko zerbitzuen erabiltzeagatik udako abonuen tarifa inguruan laguntza jasotzeko:

-Urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) kopuru arte: ordainagiriko %60a.

-Urteko LGS kopurutik urteko 2 aldiz LGSra: ordainagiriaren %30a.

Bi pertsona bizi badira, une bakoitzean dagoen kotizatu gabeko pentsioaren %75a deskontatuko da beren diru-sarreretatik.

Hiru pertsona edo gehiago badira, 3.arena eta ondorengoena, pertsona bakoitzeko kotizatu gabeko pentsioaren %50a deskontatuko da.

7.artikulua. Diru-sarrerak

Laguntza eskatutako tasei edota tarifei dagozkien ekitaldi ekonomikoan zehar izandako urteko diru-sarrerak zenbatuko dira.

Kontutan hartuko dira:

a)Urteko lortutako diru-sarrera garbiak: Lanagatik, pentsioak, prestazioak edota laguntzak.

b) Ondasun higikorren etekinak.

Elkarbizitza unitateak ondasun higiezinak (2. etxebizitza, lokalak edota garajeak) %100aren jabetzan baditu, ez ditu laguntza hauek jasoko. Ohizko etxebizitza ez da kontutan hartzen.

8.artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa izango da:

a) Eskaera orria behar den moduan beteta eta sinatuta.

b) Eskatzailearen NAREN fotokopia eta berarekin erroldatutako guztiena edota elkarbizitza unitatea osatzen dutenena.

c) Diru-sarrera garbien ziurtagiriak (10-T, Nominak, Pentsioak, etab.).

d) LANBIDEK, Enplegu Estataleko Zerbitzuak eta / edo Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako ziurtagiria, kasua bada, jasotako urteko prestazioen ziurtagiria edota prestaziorik jasotzen ez denarena, 16 urtetik gorako pertsonen buruzkoa.

Jasotako laguntzak Gipuzkoako Foru Aldundiak edota Beasaingo Udalak emandakoak badira, Udalak lortuko du informazioa.

e) 20 zifrako kontu zenbakia.

f) Zabor tasak ordaindu izanaren ordainagiria. (Tasen arloan laguntza eskaeretan soilik).

g) Ur tasa ordaindua izan den ordainagiria eta fakturazioa eraikinekoa denean, eskatzaileari dagokion kontsumo-zatiaren agiria. (Tasen arloan laguntza eskaeretan soilik).

h) Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatik tarifa ordaindua izanaren ordainagiria. (Kiroldegiko tarifen arloan laguntza eskaeretan soilik)

Aurkeztutako dokumentuak, udal-administrazioak egiazta eta berrius ditzake eta interesatuari dokumentu horietan azaltzen diren datuen argitasunak edota osagarriak ere eska dakizkioke.

9. artikulua. Azterketa eta ebazpena

Udaleko Gizarte Ongizate sailak laguntza-eskaeren espedienteak aztertuko ditu eta Alkateak ebatziko ditu. Eskaerak aurkezteko epea amaitu eta gehienez ere hurrengo 2 hilabeteetan, pertsona interesatuei hartutako erabakiaren berri jakinarazi egingo zaie.

10. artikulua. Udal zorraren konpentsazioa

Laguntzaren onuraduna Udal Ogasunekiko zordun denean eta zorra mugaeguna igarotako zor garbi eskagarria denean, Udalak konpentsatu egingo du zor zaiona.

11. artikulua. Arau-hausteak

Datuak ezkutatzeko edota ordenantza honetan ezarritako udal-laguntzetarako eskubidea ematen duten baldintzen arloan iruzurra egiteak, emandako laguntza kentzea eta jasotako diru-kopuruak itzuli behar izatea ekarriko dute.

XEDAPEN GEHIGARRIA

12. artikulua.

Ordenantza honetan jaso ez diren arlo guztietarako edota bertan aurreikusi ez arren aurkez daitezkeen kasu berezi guztietarako, Udaleko Gizarte-ongizate batzordeak ahalmen osoa izango du kasu bakoitzean komenigarriak irizten dituen neurriak proposatzeko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

13. artikulua.

Ohiko etxebizitzako ura eta zabor udal-tasen eta udal Kiroldetik zerbitzuen erabilpenagatik tarifa arloan laguntzak emateko ordenantza honek, indarrak gabe uzten du 2014ko abenduaren 5ean (233 zenbakia), Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa.

AZKEN XEDAPENA

14. artikulua.

Ordenantza hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren hurrengo egunean sartuko da indarrean.

- Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak. Hasierako onespena.

Alkate jaunak esan du HABEk aldaketak egin dituela eta horiek egin dituen heinean, ordenantza aldatzea proposatzen dela. Aldaketa nagusien artea, 16 urtetik gora izatea, Beasainen erroldatuta egotea eta ikastaroa amaitzerako matrikula ordaindua izatea eta ikastaroak gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea, baina beti ere, HABEk homologatutako euskaltegi eta zentroetan. Epeak ere jartzen dira eta gehienez 10 urteko epea lagunduko da eta mailaz sailkatzen da: A1 eta A2: 2 urtetan, B1: 2 urtetan, B2: 3 urtetan eta C1: 3 urtetan.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, ondorengo erabakia hartu da:

Euskaltegietan euskara ikasten ari diren herritarrei diru laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak, hasierako onespena ematea.

Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 56. eta ELOLEko 49. artikuluan xedatuaren arabera, informazio publikoan jartzen da 30 eguneko epean, murtziloak eta iradokizunak aurkezteko. Udalaren Idazkaritzan aztertu ahal izango da. Epe horretan ez bada alegaziorik aurkezten, behin-betikotzat onartua geldituko da.

“EUSKALTEGIETAN EUSKARA IKASTEN ARI DIREN HERRITARREI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK

Beasaingo Udalak helburu du euskara normalizatzea eta bere egitekoen barne hartzen du beasaindarren euskalduntzea sustatzea. Horiek horrela, Beasaingo Udaleko Hizkuntza Politika Batzordeak euskara ikasteko eta hobetzeko diru laguntzak emateko arauak finkatu ditu.

1.- XEDEA

Euskara ikasten diharduten herritarrei diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da oinarri hauen xedea.

2.- ARAUDIA

Laguntzen emakidak nahiz diru laguntza emailearen eta onuradunaren arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta diru laguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta 887/2006 Errege Dekretuak onartutako garapen araudia hartuko dira kontuan.

3.- ESKATZAILEAK

Diru-laguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete behar dituzte:

- a) 16 urtetik gora izatea, diru-laguntzako xede den ikastaroa amaitzen duten datarako.*
- b) Beasainen erroldatuta egotea diru-laguntzako xede den ikastaroa egiten duten bitartean.*

Bestalde, bestelako diru laguntzekin bateragarria izango da, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago.

Azaroaren 17an onaturiko diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonak edo erakundeek ezingo dituzte jaso diru laguntza hauen onurak.

Norbanakoek ezin izango dute diru laguntzarik jaso baldin eta Beasaingo udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin dituzten zorreatatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, harik eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango dela zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.

4.- LAGUNDU DAITEZKEEN IKASTAROAK

HABEk homologatutako euskaltegiek eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, eta horretarako HABEk ikasturtero ezartzen dituen irizpideak jarraituko dira.

Barnetegian ez da laguntzarik emango egoitza gastuetarako.

5.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- a) Eskabidea behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagozkien epeen barruan aurkeztea.*
- b) Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.*

c) Euskarazko ikastaroan gutxienez %85eko asistentzia egiaztatzea; horretarako, ikastaroaren hasiera- eta amaiera-data hartuko dira kontuan.

6.- IKAS-PROZESUA DIRUZ LAGUNTZEKO MODUA

10 urteko epea izango da udalak diruz lagunduko duena, prozesu hori jarraitua ala etena izan daiteke.

Prozesua lau zatitan banatuko da, eta zati bakoitza jarraian azaldutako urteen buruan gainditu beharko da dirua jasotzeko:

A1 eta A2: 2 urtetan

B1: 2 urtetan

B2: 3 urtetan

C1: 3 urtetan

7.- DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Bi diru-laguntza mota egongo dira:

a) Diru-laguntza orokorrak

Diru-laguntzaren zenbatekoa honakoa izango da: HABEk homologatutako ikastaro guztietan ikasleak ordaindutako matrikularen %60.

b) Baldintza ekonomikoak betez gero, emango diren diru-laguntzak

Aurreko baldintzaz gain, hileko diru-sarrera garbiak Urteko Lanbidearteko Gutxieneko Soldata (LGS) bider 1,5 (2016an 982,80 euro) baino txikiagoak dituzten euskara ikasleei ordaindutako kopuruaren %80 itzuliko zaie.

Horretarako eskabidearekin batera, eskatzailearen eta berarekin bizi direnen egoera ekonomikoa kreditatzeko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dira:

Laguntzaren eskatzailea bakarrik bizi bada, bere diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan osotasunean. Elkarbizitza unitatea bi pertsonak osatzen badute, une bakoitzean dagoen kotizatu gabeko pentsioaren %75a deskontatuko da beren diru-sarreretatik. Hiru pertsona edo gehiago badira, 3.arena eta ondorengoarena, pertsona bakoitzeko kotizatu gabeko pentsioaren %50 deskontatuko da.

Oinarri-arau hauen ondorioetarako, bizikidetzako unitatetzat jotzen da ohiko helbidean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak; horretarako, kontuan hartuko dira biztanleen udal erroldako datuak.

Gurasoekin bizi diren 30 urtetik gorako beka eskatzaileek, ordea, kide bakarreko bizikidetzako unitatetzat hartuko ditu Udalak. Era berean, gurasoekin bizi diren eskatzailearen anaia-arrebak 30 urtetik gorakoak direnean, ez dira bizikidetzako unitateko kide konputagarritzat hartuko.

8.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK ETA ESKABIDE ORRIAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

Eskatzaileak ikastaroa/ak amaitu ondoren egin beharko du diru-laguntza eskaera:

- Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak) uztailean egin beharko du eskaera.*
- Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), urrian egin beharko du eskaera.*

Eskaera horrekin batera, eskatutako dokumentu guztiak aurkeztuko ditu Beasaingo Udaleko Informazio Gunean (08:30 – 13:30, Loinazko San Martin plaza, z/g. Tel. 943 028050

On-line ere eskatu ahal izango da www.beasain.eus webgunearen bidez.

9.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Zazpigarren artikuluan adierazten den bezala, bi motatako diru-laguntzak izango dira. Baina, ezin izango dira bi ataletako diru-laguntzak batera jaso, batek bestea estaltzen duelako.

Bietan aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Diru laguntza eskatzeko inprimakia behar den bezala beteta. (I eranskina)*
 - b) Helburu honetarako diru-laguntzak jasotzeko buruzko zinpeko aitortpena.*
 - c) Matrikula-ordainagiriaren fotokopia.*
 - d) Euskaltegiak egindako ebaluazio txostena, bertan jasoko dira ikastaroaren hasiera eta amaiera data, taldeak emandako ordu kopurua eta ikasleak hartutakoak (asistentzia), hasierako maila eta lortutako maila.*
 - e) NAaren fotokopia.*
 - f) Diru-etxeren bateko kontu korronte zenbakia (IBANa eta 20 zifra)*
- 7b) motako diru-laguntza eskatzeko, aurreko agiriez gain honako hauek aurkeztu behar dira:*

- a) Eskatzailearen eta elkarrekin bizi diren pertsonen unitateko gainerako partaideen NAren fotokopiak.*
- b) Elkarrekin bizi direnen unitatea osatzen duten partaide guztiek jasotako hileko diru-sarrera garbien ziurtagiriak (T-10, Nominak, Pentsio-agiriak, etab.)*
- c) Lanbidek luzatutako langabezia egoeraren ziurtagiria eta kasua bada jasotako hileko prestazioen ziurtagiria edo prestaziorik jasotzen ez denarena.*
- d) Ikasleen kasuan ikasten ari direnaren frogagiria.*
- e) Bizikidetza agiria.*

10.- DIRU LAGUNTZEN ORDAINKETA

Diru-laguntza guztiak ordainketa bakarrean ordainduko dira banku transferentzia bidez, diru-laguntzako xede den ikastaro aldia amaitu eta hiru hilabeteko epean.

- *Neguko ikastaroen kasuan (urria-ekaina bitartean egiten direnak), hurrengo irailean.*
- *Udako ikastaroen kasuan (uztaila-iraila bitartean egiten direnak), abenduan.”*

3.- TASAK. Musika Eskolako tasei hasierako onespena ematea, 2016-2017 ikasturterako.

Ezagutzera eman da, hazienda batzordeko proposamena, hau da:

“GAIA: Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2016-2017 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifen onespena.

Hazienda Batzordeak 2.016ko ekainaren 27an egindako bileran, 2016-2017 ikasturtean Musika Eskola zerbitzuarengatik aplikagarri izango diren tarifen onespena proposatzen dio Udalbatzari:

Urteko kuota/	<u>Urteko kuota/</u>
MUSIKA TAILERRA	202,00 €
HASTAPENA	257,50 €
INSTRUM. + M. LENGOAIA II. MAILA	687,50 €
INSTRUM. + GAI TEORIKOA III. MAILA	727,50 €
M. L. + PANDERO EDO + KANT TALD	510,00 €
M. LENGOAIA	257,50 €
GAI TEORIKOAK	257,50 €
INFORMATIKA	257,50 €
INSTRUMENTUA EDO KANTUA II. MAILA	515,00 €
INSTRUMENTUA EDO KANTUA III. MAILA	540,00 €
TRIKITIXA (II. MAILA)	445,00 €
TRIKITIXA (III. MAILA)	465,00 €
PANDEROA	320,00 €
KANTUA TALDEAN	235,00 €

PIANOA + AKONPAINAMENDUA	790,00 €
PIANOA + AKONPAINAMENDUA + GAI TEORIKOA	955,00 €
IZENEMATEA 15-16	43,50 €
MATERIALA	13,75 €

Familia partaide kopuruarengatiko dirulaguntza:

1. partaideak: kuota osoak
2. partaideak: kuota osoak

Familia bereko 3 senide daudenean, kuota txikienaren kopuruko dirulaguntza emango da.

- Matrikula formalizatzen den unean urteko kuotaren ordainketa-betebeharra sortzen da, beraz, kurtsoan zehar gerta litezkeen bajak, haren amaierarako falta den hilabete kopurua edozein izanik ere, ez dute kuotaren murrizketarako eskubiderik sortzen.

Ordainketarako epea: Urteko kuotaren kobraketa 10 hilabetetan zatituko da irailetik ekainera bitartean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Beasaingo Loinatz Musika Eskolan 2016-2017 ikasturtean aplikagarri izango diren tarifei hasierako onespina ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitratuz eta adieraziz epe horretan ez bada erreklamaziorik izaten, behin betiko onartuak geratuko direla.

4.- KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA, Ekonomiko-finantziario plana ordezkatzeko duena.

Ezagutzera ematen da, 2016ko ekainaren 23ko kontuhartzailearen txostena, hau da:

“GAIA.- *Finantza Iraunkortasuna Ebaluatzeko Txostenaren Komunikazioa Udalbatzarrari.*

AURREKARIAK

1.- Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoaren 21.1 artikulua ondorengo xedatzen du: Aurrekontu-egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu-araua bete ezean, administrazio

urratzaileak urtebeteko epean haiek bete ahal izatea bermatuko duen plan ekonomiko-finantzario bat prestatu beharko du.

2.- Gipuzkoako Forua Aldundiak, 1/2013 Foru Arauak emandako eskumena erabiliz, "Gipuzkoako Toki Entitateek jarraitu beharreko erregelak 2016rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea" onartu du. Araudi honen 1 eta 3 erregeletan xedatzen denez, aurrekontu egonkortasunaren helburua eta gastuaren araua ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari entitateko Udalbatzarrari komunikazio bat helarazi beharko zaio, zirkunstantzia hori adierazita, Kontuhartzaileak entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txosten batekin batera.

Aipatutako xedapenetan adierazitakoa betez, igortzen da ondorengo

TXOSTENA

1.-2016 ekitaldirako hasierako aurrekontua aurrekontuaren egonkortasun eta finantzen iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betez onartu zen.

2.- 2015eko aurrekontuaren likidazioaren expedientea 8.659.389,18 euroko DIRUZAINZAKO GERAKIN LIKIDO positiboarekin likidatu da.

3.- Gaur egun Udalaren aurrekontu propioan ondorengoak formalizatu dira:

- 5 kreditu txertaketa expediente 2.009.884,86 euroko kopuruan.
- 4 kreditu gehigarri expediente 748.974,23 euroan guztira, zati batean beste kreditu batzuen bajekin finantzatuak.

Expediente horiek finantzatzeko erabilitako diruzaintzako gerakin likidoa 2.653.441,49 eurokoa izan da.

Kreditu gehikuntza horien ondorioz aurrekontu egonkortasunaren (DEFIZITA: 2.068.691,49 €) eta gastu mugaren helburuak urratuta gertatu dira, baina diruzaintzako gerakinaren erabilpenaren ondoriozko urraketa denez, ez da beharrezkoa plan ekonomiko-finantzarioa egitea, aipatutako Jarraibidearen 1 eta 3 erregelak xedatutakoaren babespean, entitatearen finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatuko duen Kontuhartzaitzako txostenarekin ordezkatzeko baita.

4.- Aipatutako kreditu gehikuntzaren guztizko kopurutik, 2.172.958,01€ euro inbertsio gastuak dira, hau da, gastu ez errepikariak eta gastu arruntaren gehikuntza nabarmenik ondorioztatuko ez dutenak ere, eta beraz, Udalaren finantza iraunkortasuna konprometitzen ez dutenak.

5.- Aipatutako kreditu aldaketak barne hartzen dituen aurrekontu bateratuaren Aurrezki garbia, positiboa da 1.254.658,33 euroko kopuruan. (Sarrera arruntak: 15.850.931,56€ Gastu arruntak: 14.061.273,23€, zorraren amortizazio: 535.000,00€). Beraz, txosten honek ondorengo adierazten du, alegia, egindako kreditu aldaketen ondorioz AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUA ETA GASTU MUGA URRATUTA gertatu arren, aztertutako informazio ekonomikotik ateratzen den ondorioa da Beasaingo Udalaren EGOERA FINANTZARIOA IRAUNKORRA dela eta aipatutako urraketen ondorioz ez dela konprometituta gertatzen."

5.- UDALBATZARI KOMUNIKAZIOA. Egindako eragozpenen aurka emandako Ebazpenei buruzko jakinarazpena.

Ezagutzero eman da kontuhartzailearen txostena, 2016ko ekainaren 27koa, egindako eragozpenen aurka emandako Ebazpenei buruzkoa, hau da:

“Txosten hau, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratzailearen 218 artikulua xedatutakoaren agindupean igortzen da, honek ezartzen baitu Udalbatzari helaraztearen beharra Toki Erakundearen Lehendakariak, egindako eragozpenen aurka emandako ebazpenen berri ematearen betebeharra.

Aipatutako xedapenak dioena betez ondorengo ebazpenak zerrendatzen direla:

- B16/00344 ebazpena, Eguneke Zentroaren Kudeaketarako zerbitzuei buruzkoa.
- B16/00396 ebazpena, Euskaltegia euskara ikasteagatik dirulaguntzari buruzkoa.
- B16/00858 ebazpena, udal eraikinen garbiketa zerbitzuarengatik.

2.- Jakinarazpen horrek puntu independente bat osatu behar duela dagokion Osoko Bilkurako gai-zerrendan.

3.- Korporazioaren Lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango duela Osoko Bilkuran.”

6.- ALKATEAREN EBAZPENAK. 2016-05-23tik 2016-06-25era bitarte emandako Ebazpenak.

Ezagutzero eman dira, 2016-05-23tik 2016-06-25era bitarte Alkateak emandako Ebazpenak.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, honelakoak aurkeztu dira:

LUDOTEKA ETA GAZTELEKU

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Gaur bukatzen da kontratua zerbitzu hau kudeatzeko eta jakin nahiko genuke gaia nola dagoen edota zein asmo dagoen zerbitzu honen inguruan.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Hizkuntza politika batzordean aipatu zen gure irizpidea zein den. Udaletxera sartu eta jarraipena egin diogu ludoteka eta gazteguneari. Bietan hartutako datuen arabera bi gauza atzeman ditugu. Zerbitzu horiek ematen hasi ginenean, ni nengoen euskara batzordean eta helburua euskara indartzearena zen baina bi zerbitzuen bilakaera ez da nahi bezain egokia izan eta herritarren harrera ere ez. Batz bestea esan dezakegu, kontuan hartuta 100.000 €ko kostua duela esleipenak, plaza azpiko ludotekan 9 urtetik 12ra hiru pertsona jardun direla eta 5 urtetik 8ra, bederatzi hamar pertsona jardun direla. Guztira hamahiru pertsona. Azterketa eta jarraipen bat egin dugu kurtsoan zehar eta baita ere, aisia ikuspegitik ez baleude ez ludoteka eta ez gaztegunea, herrian zehar zer dugun ikustea. Azken urteetan fenomeno bat eman da herrian zehar. Dantzak, 200 ume ditu adin

horietan. Saski eskola, futbol eskola hasi dira azken urteetan eta ea 200 pertsonako harrera dute ordutegi horietan, aisiari lotuta. 5 urtetik 12ra bitarte 1.300 ume baditugu, 9-10 urtekoak ea 1.500 bat jardun badira. Beste ezaugarrietako bat da, hemen behera, adibidez, 63 € tasa kobratzen da urte osoan eta beste gainontzekoetan hileko garestiago suertatzen zaie familikoei ordaintzea. Horrekin guztiarekin iritsi garen konklusiora da buelta bat eman behar zaiola. Orain zerbitzu berria irailaren erdialdean edo urrian hasiko da. Hizkuntza politika batzordean aipatu zen bezala, ikastetxeekin harremanetan gaude, hizkuntza errefortzu bezala haur hezkuntza adin horietan funtzionatzeko. Baditugu adibideak, Eskoriatza-n, Zarautz-en..., ikastetxeekin kontatuta esleipenak atera dira eta badirudi funtzionatzen dutela. Guri iruditzen zaigu hizkuntza bat dela arrazoia horrelako esfortzua eta gastua egiteko. Jakitun gara adin horietan hizkuntzan gabeziak ditugula eta aldaketak ematen direla. Lantzen ari gara ikastetxeekin. Aste honetan ikastetxe ezberdinekin bilerak burutu ditugu eta badirudi prest daudela jende bat programa horretara ekartzea. Pleguak lantzen ari gara eta pleguak landutakoan hizkuntza politika batzordetik pasatuko dugu onartzeko eta espero dugu herritarren aldetik, egun zerbitzuak duen baino harrera hobeagoa izatea.

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Niri eta taldeari tristeia iruditzen zaigu horretaz informazioa jasotzeko pleno batean galdetu beharra izatea. Nik uste dut udalean baditugula foroak gai honetan lasai hitz egiteko eta adostasuna bilatzeko guk ere uste dugulako ludoteka eta gaztegunearen inguruan gogoeta bat egiteko eta zer egin pentsatu, gastu handia delako, baina zuk orain eman duzun informazio hori guztia ez dugu. Ez dakit hizkuntza politika batzordean komentatu zen, edo...”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Hizkuntza politika batzordean datu hauek guztiak eman nituen eta grabatuta dago. Jakitun naiz gazteria batzordea dela egokiena emateko, baina teknikaria bajaran dagoelako ez da egin. Gu enpresarekin egon gara eta azalpenak eman ditugu. Gogoeta bat da eta gogoeta honekin ados egonda ere, ez du esan nahi funtzionatuko duenik. Apustu bat egin behar hizkuntza aldetik merezi duela iruditzen zaigulako.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Nik esan nahi nuena zen oposizioko taldeekin inolaz ere kontatu gabe ari zaretela. Baina, hau bat gehiago da. Nik honekin esan nahi dudana da, hau, urte osoaren laburpen bat besterik ez dela. Pixkanaka pixkanaka batzordeak husten ari dira eta Alkatearen bulegoa bihurtzen ari da erabaki gunea. Gu erabat, bigarren plano batean ari gara geratzen. Kasu honetan batzorde buruarekin hitz egiten saiatu gara eta ez zaizkigu gaur eman diren argibideak eman. Gertatu da baita ere berdintasun batzordean gauza bat esan dela eta gero Hitzan, beste bat argitaratu..., ez da berria beste aurrekari batzuk ere baditugu.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Berriz esango dut. Emandako datu guzti hauek hizkuntza politika batzordetik pasatu dira. Hor ordezkaritza duzue. Denborarekin eman da eta grabatuta dago. Beste adibide batzuk ere badaude. Adibidez gaur gertatu da UDAL SAREAREkin. Pasatu egin zaigu, baina ez dago inolako asmorik ezkutatzeko eta garbi dago erabakiak hartzen diren tokiak ez direla batzordeak. Legez Udaltzatza eta Alkateak hartzen dituzte erabakiak. Gobernu Batzordea ez da, gobernuaren batzordea, beste hamaika udaletan gertatzen den bezala. Izenak dioen bezala gobernu batzordea soilik gobernuak osatzen du. Saiakera egiten bada beste alderdiak ere gobernu batzordean egoteko..., oker ez banago 2007tik indarrean dagoena, pasatu daitezken gaiak konturik eman gabe, gobernu batzordean emateko da. Honi ez zaio indarrik kendu behar. Beste gauza da berri ematea pasatzea.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Azkeneko galdera. Pentsatu da zer gertatu behar den gaztelekuan eta ludotekan zerbitzua eman duten langileekin?. Uste dut bost langile direla. Langileen gaia erabili izan da konstruktorak aipatzen direnean. Konstruktoretako langileak bai ondo zaintzen direla. Hemengoak zainduko dira?. Esfortzua egingo da langile hauei irtenbide ona emateko?”.

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Zein konstruktorena zaindu dira?.

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Oriamendiko likidazioarekin ibili garenean, zuk konstruktoraren langileak ondo asko erabili zenituen gure aurka joateko. Ez dakit kasu honetan sentsibilidade berdina izan behar duzun ludoteka eta gaztelekuko langileekiko.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Baina, zein langile erabili ditut nik, konstruktorako langileak?

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Oriamendiko likidazioaren gora-beherarekin zuk langileak jartzen zenituen aitzaki modura esateko guk ez genuela langileei ordaindu nahi.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Nik esan nuen horrelako enpresa bati ea bi urtez berrehun eta piko mila euro ez ordaintzeak, hain argia zenean jasotzea tokatzen zitzaizela, norbaitek pairatzen badu egoera hori langileak direla. Hori da guk hasieratik salatzen genuena Oriamendi kaleko kasuan. Enpresa honi, orain bukatzen zaio esleipena. Beste baldintza plegu bat onartuko da eta hainbat baldintza berdinetan aurkeztu ahal izango dira, baina Udalak ez du inolako loturarik enpresarekin.”

Aitor Larburu jaunak (BILDU): “Konstruktoraren kasuan nik erantzun nizun gure gobernuak ordainketak eta likidazioak txosten teknikoaren arabera egiten zituela eta ez zuek bezala. Nik ez dakit idazkariarekin begiratu den subrogazioaren kasua, langileek eskubidea duten jarraitzeko, bai, ez...”

Alkate jaunak (EAJ/PNV): “Idazkaria subrogazia begiratzen ari da eta legez dagokiona egingo da. Subrogatzea tokatzen bada subrogatu egingo da, baina horrek ez du kentzen enpresa horrekin loturarik ez izatea. Bost langile daude baina oker ez banago bostak ez dute subrogatzeko eskubidea, zeren eta enpresa eramaten dutenekin subrogaziorik ez dago. Esleipenaren epea amaitzen denean, kontratua amaitu egiten da.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.